




# FAMILIEN KONFIANTZA

## Ezkortasuna itzuli da EAEko familietara

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2022ko II HIRUHILEKOA

-7




EAEko familiek konfiantza galera handia jaso zuten 2022ko bigarren hiruhilekoan, eta erregistro hori -7an kokatu zen, aurreko hiruhilekoaren aldean 15 puntu murriztuta. Hori horrela, goranzko joera geldiarazi eta balio negatibotara itzuli da, 2021eko lehen hiruhilekotik gertatzen ez zena. Konfiantza galera hori, funtsean, Ukrainako gatazka belikoak sortzen duen ziurgabetasunak azaltzen du, inflazioaren gorakada eragin baitzuen, hasiera batean produktu

energetikoen prezioetan kontzentratua, baina beste produktu batzuetara aldatuz joan dena. Era berean, inguruko gainerako herrialdeek konfiantza galtzeko joera horrekin bat egin zuten, nahiz eta egia den beherakada txikiagoa izan zutela, haien eszeptizismoa handiagoa izan baitzen susperraldi ekonomikoaren aldean, eta, beraz, balio negatiboagoetatik abiatzen ziren.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2020	2021	2021				2022	
			I	II	III	IV	I	II
<b>Euskadi</b>	-22	-6	-32	2	5	0	8	-7
<b>Europar Batasuna</b>	-15	-9	-15	-7	-6	-9	-15	-22
Frantzia	-13	-7	-13	-6	-4	-7	-13	-19
Alemania	-10	-5	-11	-4	-1	-4	-9	-19
Espainia	-23	-14	-22	-11	-9	-13	-17	-25

## EKONOMIA OROKORRA




Bilakaera okerragoa izan zuten osagaien artean, EAEko familiek ekonomia orokorraren bilakaerari buruz dituzten igurikimenak aipatu behar dira, -20ko balioan kokatu baitziren, balizko hazkunde ekonomiko txikiagoari eta prezioen igoerari buruzko mezuek eraginda. Era berean, etxeko ekonomiaren bilakaerari buruzko perzeptzioa ez zen suspertu, prezioen goranzko joera horrek eragin zuzena izan baitzuen famili-

## FAMILIAREN EKONOMIA




en eguneroko gastuan. Aitzitik, familiek itxaropen positiboak erakutsi zituzten langabeziaren bilakaerari buruz, enpleguari eusteko hartu ziren neurriekin fidatuz. Orobat, EAEko kontsumitzaileen aurrezteko ahalmenari buruzko igurikimenak positiboak izan ziren, baina nabarmen murriztu ziren, prezio handiagoek aurrezteko marjina gutxitu zutelako.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.